"ARARTEKO ERAKUNDEA BULEGO-ALTZARIEZ HORNITZEA" KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

LEHENENGO KLAUSULA. XEDEA.

Agiri honen xedea da Ararteko erakundea bulego-altzariez hornitzeko jarduera erregulatzea eta hornidura hori arautu behar duten irismena eta baldintza teknikoak zehaztea.

BIGARREN KLAUSULA. KONTRATUA BETEARAZTEKO TOKIA.

Kontratua dagokion produkturako adierazitako bulego bakoitzean egikarituko da.

Ondasunez hornitu eta instalazioa egin behar diren bulegoak eta baldintzak ezagutu eta eskaintzak prestatu ahal izateko, lizitatzaileak Arartekoaren bulegoak bisitatu ahalko dituzte. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko dute helbide elektroniko honetara: contratacion@ararteko.eus.

HIRUGARREN KLAUSULA. LANEN IRISMENA ETA DESKRIBAPENA.

Kontratistek egin behar dituzten lanek, gutxienez, honako jarduketa hauek hartu beharko dituzte barne:

- Agiri honen I. eranskinean zerrendatutako ondasunez hornitzea.
- Ordezkatutako ondasunak kendu eta birziklatzea, aplikatu beharreko araudiarekin bat; ondasun horiek agiri honen II. eranskinean adierazi dira.

LAUGARREN KLAUSULA. PRODUKTUEN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

Hornitu behar diren produktuak preskripzio tekniko partikularren agiriaren I. eranskinean zerrendatutakoak dira.

Eskainitako produktuek adierazitako kalitatea eta ezaugarriak izan behar dituzte, eta eskaintzetan horien marka, neurriak, ezaugarriak, etab. zehaztu behar dira; halaber, dagozkien fitxa teknikoak erantsi behar dira.

Horniduraren helburu diren ondasunak klausula honetan eta agiri honen I. eranskinean adierazitako ezaugarrietara egokituko dira. Baztertu egiten dira neurriei nahiz alderdi formalei dagokienez zehaztasun teknikoetara egokitzen ez diren ondasunak.

Prezioak eskatutako artikuluen ezaugarri eta xehetasunen arabera eskaini beharko dira. Produktuen prezio unitarioen eskaintza ekonomikoa loteslea izango da.

BOSGARREN KLAUSULA. PRODUKTUEN BERMEA.

Behin harrera eginda edo onespena emanda, SPKLren 210. eta 300. artikuluen arabera, ondasunen bermealdia hasiko da, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuan adierazitakoa.

Epe horretan Arartekoak egiaztatzen badu eskuratutako ondasunetan akatsak edo okerrak daudela, kontratistak ezegokiak direnak ordeztu beharko ditu, edo, nahikoa izanez gero, konpondu.

Bermeak estaltzen dituen arrazoietako batengatik eskuratutako ondasunen bat berrikusi behar bada edo tailerrean piezak ordeztu behar badira, kontratistaren kargura egongo da pieza eramatea eta martxan jartzea, eta, halaber, itzuli arte egon daitekeen edozein gorabeheraz arduratuko da, inolako kostu gehiagorik ekarri gabe.

SEIGARREN KLAUSULA. ENTREGATZEKO EPEAK ETA KONTRATUA BETEARAZTEA.

Horniduraren entrega eta betearazpena gehienez lau (4) hilabeteko epean egin beharko da. Lanak hasi eta amaitzeko epe zehatzak kontratuarekin hastean zehaztuko dira, kontratistaren eta kontratazio-organoaren artean adostu ondoren. Zehazteko orduan, Arartekoaren ohiko jarduketari ahalik eta eragozpen txikiena eragiten saiatuko dira aldeak.

I. ERANSKINA-HORNITUKO DIREN PRODUKTUEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

BULEGOA	PRODUKTUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
Bilbo	Beirazko bilera-mahaia	120 mm-ko diametroa x 740 mm-ko altuera duen bilera-mahaia, 10 mm-ko beirarekin egina, zuria edo beltza, 80 mikrako epoxi margozko akabera duen erdiko metalezko oinarekin, kolorea zehazteke.	1
	Bulego-aulki birakaria, besoekin	540 x 540 x 450/500-900/800 (altuera) mm-ko neurriak dituen aulki birakaria, eserleku ergonomikoa, tapizatua, kolorea zehazteke, saretazko bizkarralde ergonomikoa, polipropenozko markoarekin, atzeko heldulekuarekin, erraz mugitzeko. Bost erradioko gurpildun oinarria, gas bidezko goratze-sistema eta egituraren parte diren besoak, akabera beltza edo kromoa izanik.	3
	Aulki operatiboa	Bizkarralde altua, mekanismo sinkronizatua, epron sincro plus trasla motakoa. Gerrialdeko erregulazioa. 3D-tan erregula daitezkeen besoak. Beltzez margotutako aluminiozko oinarria. 40 kg/M3+50KG/M3 dentsitateko bi apar-geruza dituen eserlekua, eta ehunezko bizkarraldea, 1. taldekoa, beltza.	2
	Hegaldun bulego-mahaia	Gutxi gorabeherako neurriak: 1.800 x 800 x 730 mm-ko altuera. Hegala: 980 x 600 x 730 mm-ko altuera. Ezaugarriak edo baliokideak: Mahaia: partikuladun ohol aglomeratuzko gaineko laminatua, gainestaldura melaminikoarekin eta lau oineko metalezko egiturarekin edo antzekoarekin. Gainekoaren kolorea zehazteke. Hegala: partikuladun ohol aglomeratuzko gaineko laminatua, gainestaldura melaminikoarekin eta bi oineko metalezko egiturarekin edo antzekoarekin. Gainekoaren kolorea zehazteke. Osagarriak: tapa biribila eta kable-zorroa. Kolorea zehazteke. Mekanizatua gainekoan. Kokapena zehazteke. Mahaiarekin bateragarria den erretilu horizontal elektrifikagarria.	1
	Gurpildun azpila, 3 tiraderarekin	Gutxi gorabeherako neurriak: 434 x 525 x 578 mm-ko altuera Ezaugarriak edo baliokideak: 3 tiradera. Aldi berean tiradera guztiak blokeatuz ixteko sarraila. Balaztarik gabeko gurpilak. Melaminaz egina, kolorea zehazteke.	1
Donostia	Hegaldun bulego-mahaia	Neurriak: 1.800 x 800 eta 800 x 600 mm-ko hegala; mahaiko gainekoa eta hegalak irristariak elektrifikaziora iritsi ahal izateko, 25 mm-ko lodierako ohol aglomeratuarekin eginak, albo bietatik 120 g/m2-ko gainestaldura melaminikoarekin eta 630 ± 5 kg/m3-ko dentsitatearekin. ABS motako bazterrak, 2 mm-ko lodierakoak eta ertz borobilduekin. Altzairuzko egitura itxia, triangelu formakoa, 50 x 50 x 18 mm-ko lodierakoa, akaberak hautatzeke. Behea, elektrifikaziorako erretilua eta kable-zorroa barne.	1
	Gurpildun azpila, 3 tiraderarekin	Neurriak: 434 x 525 x 587 mm-ko altuera, 3 tiradera. Aldi berean tiradera guztiak blokeatuz ixteko sarraila. Zehaztasun handiko bolak dituzten gida teleskopikoak, tiraderaren % 80 ateratzeko. Kanpoko helduleku berriak, metalikoak, akabera honekin: zuria, grafito-kolorea, beltza edo zilarra. Ezkutuko gidak. Balaztarik gabeko gurpilekin. Kolorea zehazteke.	1
	1.200 mm-ko bilera-mahai borobila	Ø1.200 mm x 730 mm-ko altuerako bilera-mahaia, partikulazko ohol aglomeratuzko gaineko laminatua, 25 mm-ko lodierakoa, gainestaldura melaminikokoa. Metalezko hodi zirkularreko egitura, epoxirekin margotua, akabera beltzekoa. Wengue koloredun gainekoa.	1
	Altuera ertaineko aulki birakaria	Besodun aulki birakaria, egitura zuria. Mekanismo sinkronizatua, 5 jarreretan blokea daitekeena, eta pisuarekin autoerregulatzen dena. Eserleku tapizatua, eserlekuaren sakonera erregulatzeko sistemarekin. Sareta transpiragarridun bizkarraldea, zuria, erregula daitekeen gerrialdeko	1

		euskarriarekin. 2D besoak, T itxuran, zuriak, beso-euskarri beltzarekin, altueran eta altueran erregula daitezkeenak: Eserleku tapizatua, kolorea zehazteke	
	Bileretarako bulego-aulkia	Besodun bulego-aulkia, Ø16×2 mm-ko tutu borobileko egiturarekin, hotzean laminatutako altzairuarekin, egituran bertan txertatutako besoekin, epoxin margotuak; kolorea zehazteke. C taldeko eserlekua eta bizkarralde tapizatua.	5
	Pantailarako mahaiko euskarria	Beso artikulatua eta 22-24 hazbeteko monitorerako egokigailuak dituen euskarria. EZ da bateragarria VESArekin	2
	Altzariak kentzea	Honako altzari hauek kentzea: bilera-mahai borobilak, hegaldun bulego-mahaia, gurpildun azpila, eta sei bulego-aulki.	1
Vitoria-Gasteiz	2.200 x 2.000 mm-ko zuzendaritza-mahaia	Hegaldun zuzendaritza-mahaia, 2.200 x 1.000 mm-koa, eta 1.000 x 600 mm-ko hegala, 40 mm-ko egur naturaleko txapaz eginiko gainekoarekin. 40 mm-ko ohol gainxaflatuarekin fabrikatutako alboak, egur naturaleko txaparekin. Egiturarekin lerrokatuta ez dagoen gainekoa, apaingarri kromatuekin. Elektrifikazio-kita barne.	1
	Gurpildun azpila, 3 tiraderarekin, egur naturalean	Neurriak: 440 x 570 x 555 mm-ko altuera. Egur naturalezko txaparekin eginiko egitura. Ahokatutako heldulekuak, kromoko akaberarekin. Tiradera guztiak eta sarraila aldi berean ixteko sistema.	1
	Zuzendaritza-besaulkia	Zuzendaritza-besaulkia, birakaria, bizkarralde altuarekin, buru-euskarri integratuarekin eta larruzko besoekin, 685 x 660 x 455/515-645/735-120/127 mm-ko altuerakoa. 5 erradioko egitura gurpilduna, nylonezko gurpilekin, 65 mm-ko diametrokoak, altzairu leunduzko akaberarekin. Beso finkoak, kromozko eta larruzko akaberarekin. 4 jarreratan blokeatzeko sinkro mekanismoa; tentsioa doitzeko eskutokia. Gas bidezko pistoiarekin altuera erregulatzeko sistema. Behi-larruarekin tapizatutako eserlekua eta bizkarraldea, beltza.	1
	Bulego-aulkia	Bulego-aulkia, birakaria, bizkarralde altuarekin, buru-euskarri integratuarekin eta larruzko besoekin, 685 x 660 x 425/515-645/735-120/127 mm-ko altuerakoa. 5 erradioko egitura gurpilduna, nylonezko gurpilekin, 65 mm-ko diametrokoak, altzairu leunduzko akaberarekin. Baso finkoak, kromozko eta larruzko akaberarekin. 4 jarreratan blokeatzeko sinkro mekanismoa; tentsioa doitzeko eskutokia. Gas bidezko pistoiarekin altuera erregulatzeko sistema. Behi-larruarekin tapizatutako eserlekua eta bizkarraldea, beltza.	2
	Aulki operatiboa	Bizkarralde altua, mekanismo sinkronizatua, epron sincro plus trasla motakoa. Gerrialdeko erregulazioa. 3D-tan erregula daitezkeen besoak. Beltzez margotutako aluminiozko oinarria. 40 kg/M3+50KG/M3 dentsitateko bi apar-geruza dituen eserlekua, eta ehunezko bizkarraldea, 1. taldekoa, beltza.	2
	Bi pantailarako mahaiko euskarria	Euskarria bi beso artikulaturekin eta 22-24 hazbeteko monitorerako egokigailuekin. EZ da bateragarria VESArekin	3
	Altzariak kentzea	Altzari hauek kentzea: hegaldun zuzendaritza-mahaia, 3 tiraderako gurpildun azpila, armairua eta bi bulego-aulki.	1

II. ERANSKINA – KENDU BEHAR DIREN ONDASUNEN ZERRENDA

BULEGOA	PRODUKTUA	IRUDIA
Donostia	Bilera-mahai borobila	
	Hegaldun bulego-mahaia	
	Gurpildun azpila	

	Sei bulego-aulki		
Vitoria-Gasteiz	2200 x 2.000 mm-ko zuzendaritza-mahaia		
	Gurpildun azpila, 3 tiraderarekin, egur naturalean		

	Zuzendaritza-besaulkia		
	Bulego-aulkia		
	Armairua		